

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritzaren maiatzaren 26ko 846/2020 Ebazpena, agintzen duena Arabako Foru Aldundiaren sailek hainbat elkarte eta erakundekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen laburpenak argitaratzeko

Diputatu Nagusiaren Sailaren Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari lankidetzaren hitzarmenen hainbat kopia bidali zaizkio, Arabako Foru Aldundiko sailek behar bezala sinatuta.

Kontuan harturik zer xedatzen duten horri buruz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47. artikuluan eta hurrengoetan; Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 79. artikuluan, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek,

eta aintzat hartuta aipatutako lege aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak, eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 102. artikulua eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatuak xedatutakoari jarraituz dagozkidan eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetzaren hitzarmen hauek:

IZENPETZE EGUNA: 2019ko abenduaren 19a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Rafael Ledesma Ledesma, Espainiako Itsuen Nazio Elkarteko Euskadiko Lurralde Kontseiluaren lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Lankidetzaren hitzarmena, desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak egiteko.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 8.119 euro.

Indarraldia: 2019ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko urtarrilaren 28a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Daniel López de Armentia Cortés, Ekonomialarien Euskal Elkargoaren Arabako Ataleko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Ekonomistak Euskal Elkargoaren arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Ekarpenak: 25.000 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: 2021eko ekainaren 30a.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Esther Martín Jiménez, Aspasor Gorren Gurasoen eta Lagunen Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Lankidetzaren hitzarmena, elkartearen funtzionamendurako eta elkar-tearen beraren jarduerak garatzeko.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 75.070 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: M^a Isabel Perea Ortiz, Afaraba Alzheimer gaixotasunak eta beste dementzia batzuek jotako pertsonen senide eta adiskideen elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Elkartearen beraren jarduerak gauzatzeko lankidetzaren hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 255.290 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Angel Ortiz de Zárate Landa, Arabako Pentsiodun, Erretiratu eta Alargunen Las Cuatro Torres Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Elkartearen beraren jarduerak gauzatzeko lankidetzaren hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 125.000 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Maite Sebal Arrien, Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasen zuzendaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Lurralde Historikoan gizarte ekintzak koordinatzeko lankidetzaz hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 42.400 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Jesús Cantero Martínez, Gurutze Gorriaren Arabako Batzarraren lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Landa eta tokiko gizarte jarduerak koordinatzeko hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 42.400 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Abel Barinagarrementeria Larrañaga, Tearaba Arabako Autismo Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Elkartearen beraren funtzionamendurako eta monitoreekin jardueren programa egiteko lankidetzaz hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 260.000 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Isabel Benito Montoya, Itxaropena Ikusmen Urritasuna duten Pertsonen Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Elkartearen funtzionamendurako eta jarduerak garatzeko lankidetzaz hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 99.030 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Julian Larrad Crespo, ATECE Hartutako Burmuineko Gaitzaren Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Elkartearen funtzionamendurako eta jarduerak garatzeko lankidetzaren hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 178.650 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 6a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Esther Ruiz de Arbulo Pérez de Arenaza, Arabako Gorrak Arabako pertsona gorren elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Elkartearen beraren jarduerak gauzatzeko lankidetzaren hitzarmena.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 41.270 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko otsailaren 28a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Igor Navarro Brea, Eginaren Eginez Arabako Ezindu Fisikoen Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Lankidetzaren hitzarmena, elkartearen funtzionamendurako eta elkartearen jarduerak garatzeko.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 84.800 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 26a

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria
ELENA FERREIRA SEBASTIÁN